

**DEABRUAREN INSPIRAZIOAZ GALILEOTIK
FILOSOFIAREN HISTORIAN**

Nik orain hemen ezin dut burutu eskolastikaren osteko filosofiaren historia gaurko egunetara arte. Luzeegi joango litza-teke eta goikoek agindu didate hiru orritakoa, gutxi gora-behera, izan behar dela nire artikulua luzera. Laburbildu egin behar dut, beraz.

Non dago batez ere filosofoaren komentarista den eskolastika kristauaren gainbeheraren hasiera?. Niretzat gaizki ulertu batean. Definizio hobegoko instrumentuekin Galileok astronomian gaur egun denok dakiguna deskubritu zuen. Hobeto ikusi zuen, besterik ez da. Eta definizioaren filosofoa Socrates da, Platonen, eta gero filosofoaren maisua. Eta kosmos materialaren definizio hobeak, hobeto ikusiz adibidez, beti egin daitezke. Hori, esan genezake, infinituan amaitzen da, halakoa baita materiaren potentzialitatea. Filosofia material estriktoan helburu unibertsala sekula ez da iristen. Badago filosofia materialean (hori da materialisten filosofia bakarra) halako tara bat unibertsal bihurtzerakoan. Ikusi izan balitz hori Galileoren garaian eskolastikak jarraituko zuen bere nagusitasun intelektuala edukitzen. Jesusek ere Pilatori erran zion bere Erreinua ez zela kosmos honetakoa.

Baina ez zen problema hala interpretatu, denok dakigun bezala. Apurtu egin zen filosofoarekin, apurtu egin zen eskolastikarekin. Eta errenazimentua etorri zen, eta ilustrazioa etorri zen, eta dialektika, eskumakoen idealismoa eta ezkerre-

koen materialismoa (nik, lehenengo liburutik, materialismoaren ezina teorizatzen dut), darwinismoa (borroka unibertsal bihurtzen duena), eta borondatearen filosofoak, borondatea daukagun bakarra izango balitz bezala teorizatzen, eta existentzialismoa, eta hola. Eta jainko inexistente bat ere teorizatu zuten, arrazoia. Eta gaur egun eszeptizismoaren adartze zientifismoa nagusitu da hainbeste ezen filosofiaren heriotza ere teorizatzen den. Zientzien zientziaren amaiera. Ez omen du ezertarako balio. Eta ni ez nago ados.

Baieztaatu dut arestian nola filosofia materialean ezin den universal bihurtu. Zerbait unibertsal bihurtuz ezagutza horrekin a priori asmatu ahal izango genuke horretaz. Hor legoke demostrazioa. Eta kosmos materiala unibertsalki ezagutzen duenak badezake Kantek, Jesusen mirariak aintzat hartu gabe, juizio sintetikoak a priori burutu. Ezinezkoa da hori filosofia materialean. Baina Jesusen mirariak pixka bat estudiatuz gero, zerbait ikasten da Jesusen izaeraz. Eta, irakurlea konturatzen bada, ni ez naiz orain arte filosofia materialetik atera.

Soilik errango dut errealitatea formalizatua ikasten dugula ezinbestez. Unibertsalen polemika hemen planteatzen dut nik, kausa formalean. Eta egiak ere nola badiren erran eskolastikaren ostean, ni progresista naiz. Baina nora goaz?. Intelecto agenteak, lanak, beharrak, egiten du beti aurrerapena litekeena izatea. Eta badago, laburbilduta zeharo, halako kausa final bat, filosofoarendako dibinitatea dena, guretzat Jainkoaren Erresuma.

Eta, amaitzeko, diszernimendu handia eduki behar da tituluari diodana baieztatzeko. Hor bidea bitan bereizten baita, bata deabruaren etorritik doana, deabruaren jite arrazoizkoaren bidetik, galbidea, eta bestea aingeru guardakoaren bidetik doana, filosofia egiazkoa, egiari hur ematen dion filosofia. Ez gaude eskolastiko modernook aurrerapenaren kontra, bistan dago. Bakartiak garela?, bai, eta hortik burutik pixka

bat nahasiak. Baina hori konpontzeko moduko problema da. Filosofia eskolastiko kristauak nagusitu behar du berriro (unibertsitate katolikoetan, filosofiako fakultateetan), hori da nire nahi oihartzunik gabea. Ez baitakit kasurik egingo didaten dudan biografiarekin. Katolikoak ere eszeptiko samarrak izango direlakoan nago nirekin eta nire argitasunarekin, batez ere ezagutzen nautenak.

Roman Garmendia